




Enpresen konfiantzak hobera egin du hirugarren hiruhilekoan

Enpresen konfiantza
Indizea




Iturria: INE.

INEk egindako estatistikaren arabera, EAEko enpresen konfiantzak hobera egin zuen hirugarren hiruhilekoaren hasieran. Indizeak lortutako maila (131) Ukrainako gerraren aurretik eta pandemia hasi aurretik izandakoaren antzekoa da. Enpresek adierazi dute egoera ona dela eta igurikimenek hobera egin dutela.

Aireko trafikoa suspertu da EAEko aireportuetan

Aireportuetatik abiatutako pertsonak
Urte bakoitzeko ekaina. Mila




Iturria: AENA.

Ekainean, EAEko aireportuetan pertsonen trafikoa %139,1 hazi zen aurreko urteko emaitzaren aldean. Guztira, 595.700 bidaiarik hartu zuten hegaldi bat. Horrek esan nahi du 2019ko hil berean izandako jardueraren %94 berreskuratu dela, serieko daturik handiena erregistratu duen urtea hori izan baitzen.



KPIa ekainean %9,6an kokatu zen EAEn



Iturria: INE.

Ekainean, Euskadiko KPIa %9,6 igo zen, 1986ko amaieratik izandako tasarik handiena baita. Igoera berri horren arrazoiak erregaien, elikagaien, jatetxeen eta ostatuen garestitzea dira. Beste aldetik, azpiko inflazioa %5,4ra igo da.

Europako

Euroguneko PMI konposatua Indizea

Euroaren eremuko, horri esker, enplegua handitu zuten.